

Soraluzeko

XXXIX. IDAZLAN LEHIAKETA

C maila



SORALUZEKO
UDALA

Osintxuko robota

C maila
1. saria
PERU GISASOLA
LARREATEGI

B2030eko maiatza da eta Patxi izeneko mutiko bat Osintxuko baserri batean dago gelan sartuta. Patxi seme bakarra da eta 18 urte ditu. Bakarrik bizi denez, gelan egoten da beti sartuta eta gelatik jateko edo kalera urtetzeko bakarrik irtetzen da. Patxi tiktoken nabigatzen zegoen eta "dirua irabazteko forma erraz" bat agertu zitzaion. Tiktok horretan gauzak merke erosteko eta gero garesti saltzeko esaten zuen. Patxiri oso ideia ona iruditu zitzaion, baina lanik egitea ez duenez gustuko robot batek bere partez lan egitea pentsatu zuen. Horretarako, beraren bi lagun deitu zituen, Ibon eta Pako.

Iboni eta Pakori oso ideia ona iruditu zitzaion eta robotak programatzen hasi ziren. "Chat GPT" adimen artifizialari robot bat pausoz pauso nola egin galdetu zion Pakok. Ondoren, pieza danak lortzen hasi ziren, herritik gertuko dendetatik, beste herrietatik... Etxera heldu ziren berriro eta orain bai, eraikitzen hasi ziren. Hasteko, Pako robotaren programazioa egiten hasi zen. Ibon maketa egiten hasi zen eta Patxi biak ikusten gelditu zen. Pakok Patxiri galdetu zion:

- Honekin diru asko irabaziko dugu?

Patxik erantzun zion:

- Bai, gure ordeztan lan egingo du eta nahi dugun denbora guztian.-Pakori irribarre bat irten zitzaion eta lana egiten segitu zuen.

Dena ondo ipintzerakoan, pizteko botoiari eman zion Ibonek. Baina ezusteko bat gertatu zen. Patxik instrukzio danak eman zizkion robotari, baina robotak ignoratu egin zuen eta etxetik irtetzen hasi zen. Pako itzaltzeko botoiari jotzera joan zen, eta botoiari ematera zihoanean, robotak eskua itxi eta ukabilkada bat jo zion Pakori. Momentu horretan, Patxik robotean "ERROR" hitza ikusi zuen. Pako odoletan zegoenez etxe barrura eraman zuten. Pakori zauria sendatu zienean zer pasatu zen bilatzen hasi ziren. ChatGPT-k maketa sortzerakoan akats bat egon zela esaten zuen, baina Ibonek ez zuen sinistu ChatGPT-ren pausuak zehatz-mehatz segitu zituelako. Patxi leihotik begiratzera joan zen eta robotak presara zihoala ikusi zuenean plan bat pentsatu zuen.

- Pako, Ibon, hau izango da plana!

Esan zuen Patxik.

Patxi plana azaltzen hasi zen Pakok eta Ibonek gutxi gorabehera ulertu zutenean presara bidean joan ziren. Ibonek robota uretan ikusi zuen eta plana pausoz pauso segitu zuen. Ibon harriak botatzen hasi zen robota haserretzeko. Robota haserretu zenean, presatik urten zen.

Pakok robota despistatuta zegoela ikusi zuenean robota itzaltzera joan zen, baina berriro ukabilkada bat jo zion. Ibonek hau esan zuen:

- Orain, zer egingo dugu?

Baina bat-batean Patxi sua zeukan makil batekin agertu zen eta robota erre egin zuen. Patxik eta beraien lagunek lekzio bat ikasi zuten; bide errazena, beti ez da onena.

Familia desberdinak

C maila

2. saria

NAIA RODRIGUEZ

ALONSO

Donostian Alaia izeneko neskatxo bat bizi da. 14 urte ditu eta oso neska alaia da. Bestalde, Nekane izeneko neska bat ere bizi da. Biak lagunak dira eta kuadrilla berbera dute. Eskolan zeudenean, haien koadrillako batek proposamen bat egin zuen:

- Zuek, bihar ETS-ko kontzertu bat dago Andoainen. Joango gara? Gaueko hamaiketan da. Animatzen zarete?

- Bai! -esan zuen Nekane.

- Bai, baina galdetu beharko dut. -esan zuen Alaiak.

Besteek baietz esan zuten. Alaia etxera heldu zenean, egin zuen lehenengo gauza, baimena eskatzea izan zen:

- Ama, aita, bihar ETS-ko kontzertu bat dago Andoainen gaueko 23:00etan. Joan naiteke?

- Ez dakit... Oso berandu da. Zuk zer diozu? -esan zuen aitak.

- Gainera, Andoainen... -jarraitu zuen amak.

- Mesedez, zin egiten dizuet ez zaidala ezer gertatuko. -esan zuen Alaiak.

- Hurrengo batean, nagusiagoa zarenean. -esan zuen.

- Joo... mesedez... 14 urte ditut. -jarraitu zuen Alaiak.

- Ezetz esan dut! -esan zuen aitak. Hori esanda eztabaida amaitu zen.

- Gorroto zaituztet! -esan zuen Alaiak eta malkoz beteta.

Bere logelara joan zen eta ateari golpe gogor bat eman zion. Ohean negarren egon ze. Gero Nekaneri deitu zion.

- Kaixo, Nekane!

- Kaixo.

- Ez didate kontzertura joaten utzi. Nire gurasoak gorroto ditut. Zuri zer esan dizue?

- Niri ez didate ezetzik esan.

- Zu bezalako familia bat edukitzea nahiko nuke.

Bat-batean mundua gelditu zela igarri zuen Alaiak. Begiak ireki zituenean, Nekaneren logelan zegoela konturatu zen. "Nik zer egiten dut hemen?" -pentsatu zuen. Ispilua ohe aurrean zuen eta altxatu zenan Nekane zela konturatu zen. Txundituta geratu zen.

Egongelara jaitsi zen eta inor ez zegoela konturatu zen. Nekaneren gurasoak lanean zeuden. Zerbait afaldu zuen eta hortik 30 minututara gitxi gorabehera atea irekitzen zela igarri zuen. Nekaneren ama zen.

- Kaixo! -esan zuen Alaiak.

Inork ez zion erantzun, Alaia ez zegoela ematen zuen. 10 minutu beranduago aita heldu zen. Isiltasuna egoteaz soinu asko egotera pasatu zen. Eztabaidan zeuden denbora osoan. "Nekane gaixoa, bere gurasoak aguantatu behar ditu eta gainera bera egongo ez balitz moduan tratatzen diote". "Normala edozer gauzetara joatea uztea, bere gurasoek ez diote kasurik egiten".

Alaia bere familia berataz kezkatzen zela konturatu zen. Begiak itxi zituen eta bete gorputz normalera bueltatu zen. Eskailerak jaitsi zituen eta gurasoak besarkatzera joan zen.

- Barkatu ama, barkatu aita. Oso gaizki hitz egin dizuet eta badakit nitaz kezkatzen zaretela.

Gurasoek besarkada bueltatu zioten.

Gogoratu, zure familia zutaz kezkatzen dela eta familia bakoitzak bere arazoak dituela.

Itsasoan galduta

C maila

3. saria

NORA LARREATEGI
SÁNCHEZ

Kaixo, ni Nora naiz eta gaur joan zen urtean gertatu zitzaidan gauza bat azalduko dizuet.

Lide nire lagunarekin surf ikastaro batera apuntatu nintzen Deban. Egun batean, itsasoan geundela olatu bat etorri zen eta taulatik erori nintzen. Uretara erori nintzenean, ez nuen busti nintzela sentitu, Lide nire izena esaten izan zen entzun nuen bakarra. Itsasoan zulo bat ireki zen eta bertatik erori nintzen. Hortik aurrera ez dut ezer gogoratzen.

Bat-batean toki txuri eta oso bigun batean agertu nintzen, izkina batera gerturatu nintzen eta bera begiratu nuen. Laino batean nengoen!

Deba ikusten zen, hondartza. Bertan Ertzaintza, suhiltzaileak... zeuden nire bila. Izututa atzera bota nintzen eta momentu horretan gardena nintzela konturatu nintzen. Egun bat pasa nuen bertan, baina aspertuta salto egin nuen, gardena nintzenez, pentsatu nuen ez zitzaidala ezer gertatuko eta horrela izan zen, ez zitzaidan ezer gertatu. Igeri eginez hondartzara heldu nintzen. Hor zeuden, nire bila. Ez nindutenez ikusten, ez zekiten hor nengoenik. Harean idazten saiatu nintzen, "hemen nago" ipintzen baina haizearen gaitik ez zuen funtzionatu.

Egunak pasa ziren eta surf ikastaroa berriro zabaldu zen, Lide joan zen. Lideri nire gauza bera gertatu zitzaion. Lidek ni ikusi ninduen biok gardenak ginelako eta lainotik salto egin zuen. Bion artean hondartzako arroken ondoan koba bat bilatu genuen eta hor pasa genituen gauak. Halako batean, argi bat agertu zen koban eta...

Ametsetik susto baten ondorioz esnatu ginen biok eta non geunden begiratu genuen eta surf ikastarora joateko busean geundela konturatu ginen. Biok ametsetaz hitz egin genuen harrিতa geunden, oso.

Ikasturte horretan ez zitzaigun antzeko ezer gertatu, baina aurtengo ikasturtean ametsa gertatuko balitzaigu? Edo hurrengo zatia amesten badugu? Kasualitatea bakarrik izan bada?